

IRUDIA ETA MUSIKA

Bideoa eta kanta, bi euskarri hedapenerako

AURTENGO EKITALDIKO KANTA

Big Beñat eta Korrika 20001

Begira ezazu... Big Beat Beñat
 Begira ezazu... Big Mac behera
 Korrika badator... Big Beñat buru
 Uh, uh, uh, uh, uh... mundu bat bildu

Korrika badator
 Yeah! yeah! yeah! yeah! yeah!
 Badator
 Korrika, herri bat mugimenduan
 Badator ta Big Beñatentzat
 Besteste ezinezko misio bat
 Mundu bat bildu da kontsigna
 Ezin huts egin gure antiheroiak
 Big beat-a erritmo erraldoiaz
 Nor ez du martxan jarriko horrelako deiak?

Gas-Gasteiztik
 Bai-Baionarat
 Mende berri bat
 Hasteko dugu Korrika
 Buruan mundua
 Makina jendea
 Pentsatu globalki ta
 Ekin lokalki ez al da?
 Eskualdunak gara
 Eta mundukideak
 Uniformetasunetik at
 Gizakiak
 Ez kasko transgenikoak
 Ez zenbakiak
 Bizirik, mugaegunik ez baitu euskarak
 Modernizatzea bada izan gisakoa
 Barra kodea tatuatu nire ipurdian

Macdonalizazioa, kultur globalizatua
 Kontsumitu plastikoa, janari azkarra bezala
 Uztartzea da bat, Bestea ezarpena
 Elkartrukatu edo derrigortu ereduak
 Big Beñat, babarrunak eta aza popularra
 Suge tako mexikarra eta pa amb tom/quet
 Gazta eta intxaurreak, Lurra ez baita zolua
 Bazter dezagun behingoz kaka zahar-zaharra

Ttipittapa, ttipittapa... KORRIKA
 Ttipi ttpa, ttipi ttpa... KORRIKA

Fermin Muguruza arduratu da kantaz, eta Asier Altuna eta Telmo Esnal bideoklipaz

Urtero-urtero Korrikak eta antzeko ekitaldiek beren kanta eta bideoklipa izan dute, promozioa egiteko. Aurtengo kanta Fermin Muguruzak egin du, eta bideoklipa grabatzeaz Asier Altuna eta Telmo Esnal arduratu dira. Biak ala biak ere zinemagintzan egiten dute lan, baina euren kasa ez dute film luzerik egin. Dena dela, 40 ezetz eta Txotx! film laburrekin izandako arrakastak ezagun egin ditu Euskal Herrian.

Bideoklipak egitea film laburrak egitetik ezberdina da, baina AEKtik deitu zietenean gustura hartu zutela aitortzen du Asier Altunak. Lehendik beste bideoklipen bat egin duela dio, baina «oso kutreak ziren. Lehen bideoklip serioa hau izan da». Orain arte egin dutenarekin alderatuta, lan ezberdina zen bideoklipa egitea, «gainera, dirua zegoen bideoa egiteko», diosku Asierrek; «lan-baldintza ezin hobeak ziren, eta onartu egin genuen». Izan ere, Korrikako arduradunak produkzio lanetan aritu ziren, baina gainontzekoa euren esku utzi zuten: «casting-a geuk egin genuen, eta lan taldea ere guk aukeratu izan zen».

Film laburrekin duen alde handiena gidoian datzala dio, «izan ere, bideoklip batean ez da beharrezkoa, kanta idatzia baitago, eta zure lana imajinak jartzea besterik ez da». Ez da hau film bat eta bideoklip baten arteko ezberdintasun bakarra, ordea; bideoklip batean errit-

moa ere musikak ezartzen du, eta istorioa ez da zertan linealki kontatu.

Lana orain gutxi ikusi ahal izan bada ere, aspaldi hasi ziren prestatzen. Iazko ekainean hasi ziren proiektua nola aurrera eraman erabakitzen. Abestia pasatu zieten eta istorioaz pentsatzen hasi ziren. Korrikako antolatzaileekin eta Fermin Muguruzarekin bilera batzuk ere egin zituzten, eta pixkanaka forma hartzen hasi zen. Iraila aldera egin zuten grabaketa, Zamudioko parke teknologikoan; bi egun iraun zuen, «nahiz eta grabaketa egin aurretik hilabete bat eta ondoren astebete eman dena prestatzen».

Honen guztiaren emaitza telebista pantailetan ikus daiteke. Eurak gustura daude egindako lanarekin, eta badirudi jendeare ere gustatu zaiola; Asierrek dioenez, «aurretik ikusi duen jendeare asko gustatu zitzaion, imajina aldetik erakargarria baita». Erakargarritasun hori nola lortu duten galdetuta, Asierrek imajinazioa zabaldu nahi izan dutela dio: «Gu imajina arraro batzuk hartu eta jendea harritu eta probokatzen saiatu gara. Dena dela, ideiak aurretik zehaztuta zituela dio, «izan ere, Ferminnek abestia idatzia zuen, eta horri heldu behar genion». Ferminen abestia izanda, eta abestiak bideoaren egitura finkatzen duenez, hura ere oso sartuta ibili dela dio Asierrek, eta musikarekin ez ezik, bideokliparekin ere lan handia egin duela esaten du.

BIDEOKLIPA IRUDIETAN



Zamudioko parke teknologikoan egin zen bideokliparen grabaketa. Bi egun iraun zuen errodiak. Goiko argazkian, Xabier Ugalde, Fermin Muguruza, Asier Altuna eta Telmo Esnal.



urrats
euskaltegia

Katalina Erauso, 21 behea
 Tel.: 943 46 55 93
 E-mail: urrats@jalgi.com
AMARA BERRIA



Konstituzio plaza, 5 - 2.
 Tel.: 943 42 49 10
 E-mail: ilazki@jalgi.com
ALDE ZAHARRA

HITZEZ
Euskaltegia



Kolon Pasealekua, 5 behea
 Tel.: 943 27 81 55
GROS